

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0017</p>	<p>Ur eta saneamendu tasan familia ugarietzako hobaria jasotzeko eskaria</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Familia ugarien kasuan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuaren tasan hobaria eskatzeko.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozeinek edo bere lege ordezkariak.

Bete beharreko **eskakizunak**:

Familia ugari titular izaera duten zergadunek hobaria izango dute 1. atalean. Hobari hori hurrengo taularen arabera arautuko da, ondoren adierazten diren eskakizunak betetzen badira:

Familia ugari mota Hobari %

Orokorra %25

Berezia %35

Halaber, onuradunei, hiru hilabetez behin 60 m³tik gorako kontsumoa egiten badute, horren azpian dagoen kontsumo tarteari dagokion tasa aplikatuko zaie, hobariaren % hori aplikatu aurretik.

1. Higiezina zergadunaren ohiko etxebizitza izan beharko da.
2. Familia unitateko kide guztiak udalerrian erroldatuta egon beharko dira.
3. Errenta maila ez da 9.000,00 eurotik gorakoa izan beharko familia unitateko kide bakoitzeko, desgaitasuna duen kide bakoitza bi gisa zenbatuz. Errenta maila ezartzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren aitortpenaren oinarri zergagarri orokorraren laukitxoan agertzen den kopurua hartuko da kontuan.
4. Kontsumoak ezin izango ditu gainditu pertsona bakoitzeko 11,25 m³ hiruhileko bakoitzean.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Interesatutako pertsonaren edo ordezkariaren NAN edo IFK edo horiek ordezkatzeko dituen beste nortasun agiri bat.
- Izapidea egiten edo sinatzen duen pertsona interesatua ez bada, ordezkariaren NAN aurkeztu beharko da.
- Indarrean dagoen Familia Ugari kasua, une honetako legediarekin bat datorrena, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa.
- Familia unitateko kide bakoitzak egindako azken errenta aitortpena, edo aitortpena egin behar ez izatea adierazten duen dokumentua, edo diru-sarrerarik ez jasotzea adierazten duen zinpeko adierazpena.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

Email bidez:

- diruzaintza@amorebieta.eus

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 6 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkairako Tributu Foru Araua](#)
- [Zerbitzuak eman edo administrazio jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Dokumentazioaren administrazio azterketa, HAZak egingo du.

- Espedientearen irekiera, HAZak egingo du.

Dagokion sailera bidali: Errentak eta diru-bilketa

- Espedientea teknikaren administrazioaren ikuspegitik aztertu
- Instanzia teknikoari zuzentzeko eskatu

Ebazpena

Jakinarazpena

Erroldan sartu

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Hobari hori, eman eta hurrengo ekitalditik aurrera hasiko da aplikatzen, eta horretarako eskaria, aplikatzea eskatzen den aurreko ekitaldiko abenduaren 1a edo ondorengo egun balioduna baino lehen aurkeztu beharko da. Familia ugariak, bere izaera horrengatik, izan dezakeen zerga alorreko edo bestelako edozein hobarirekin, bateragarria izango da.

Hobariak gozatzeko epea, familia unitateak familia ugari izaera duen bitartekoa izango da, eskatzen diren gainerako betekizunen kalterik gabe. Zergadunak horri dagozkion aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu, eta Administrazioak, hobaria ezartzeko beharrezkoak diren eskakizun guztiak betetzen direla ofizioz egiaztatze eskubidea izango du, hobariak modu desegokian gozatu dela egiaztatuz gero, egin beharreko kitapen osagarriak gehi atzerapeneko interesak bideratuz. Hala ere, bidezkoak diren aldaketen kalterik gabe, familia ugari tituluaren iraungitze data hartuko da hobariaren amaierako data gisa.